

Bizi naiz

I

“Betikotasun” hitzak badauzka hainbat etsai hankabiko, hain gezurrezko ikusten dute, hain faltsu, hain patetiko... Kontraste hortan bada hamaika burutapen hermetiko: noiz artekoa da heriotza ezer ez bada betiko?



ZAHARA ENBETTA

IV

Zientziaren erlijioak ustez nor ez du bizkortu: Bera ez al zen heriotzari izena jartzeko sortu... Nahiz medikuntza diagnostiko potoloan egoskortu, ziurra al da noiz hiltzen den bat ta noiz den gorputza gorpu?

II

Azken hatsaren mugarri hori barneratuta gabiltza, (agian ez da “barneratzea” buruan daukadan hitza) arima ez da itoko baina arimarik ez balitza?... Besterik gabe gure arnasak neurtzen al du bizitza?

V

Arnasdunari hau egitea zentzugabe da hain justu baina paisaia bizi bat nahita ezin da gorpuz narrastu... Hortaz, hilotza lurperatzen da, edo bestela erraustu... Norbait hilketan zenduko zela egingo nuke apustu.

III

Sartu ezker bukaeraren eta mugen edukian, kontu krudela da heriotza, inork ez du erruki han. Ezinezkoa dela hiltzea dio kantzak urrutian: bihurtu baino ez gara egiten izanaren barrutian.

VI

Heriotza hain ximplea izanik, ximplea errematea, bizitza antzu suma daiteke, ta zail da eramatea. Buelta gabeko kontua bada azken hatsa ematea, zergatik ixten ote da giltzaz kanposantuko atea?

DOINUA: “Mende lauren bat”.